

Getxo >MEETING<



Azaroak 7 Aholkuak saltzeko

Joan den azaroaren 7an, GetxoMEETINGek Getxoko ekintzaileak eta enpresariak bildu zituen, beren trebetasun komertzialak hobetzeko eta garrantzitsuenera begira jartzeko: epe luzerako konfiantza-harremanak sortzea, hobeto saltzeko.

Jardunaldiari hasiera emateko, gosaria antolatu dugu Getxolanen, hausnartzeko 2024. urtea modurik onenean ixteko ditugun estrategia eta salmenta moduei buruz.

Hona hemen partekatu eta landu genituen ideia nagusietako batzuk:

- Saltzea baino gehiago entzutea: Arlo komertzialean, aktiboki entzutea funtsezkoa da; bezeroaren beharrak ulertzea baliotsuagoa da beti zerbitzuak berehala eskaintzen aritzea baino.
- Bezero bila irtetea: Aukerak iritsi arte itxaron beharrean, saltzera irteteak ahalbidetzen du erabakitzea norekin lan egin. Horrek gure proiektu eta

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



harreman komertzialen gaineko kontrol handiagoa ematen digu. "Lorea ez izatea, erlea izatea"

- Salmenta-ikuspegia dibertsifikatzea: Funtsezkoa da online eta aurrez aurreko marketina konbinatzea. Networking ekitaldietara joateak eta bilerak hitzartzeak, e-mailen bidez edo aurrez aurre, gure presentzia indartzen du eta balio-konexioak errazten ditu.

Topaketan, gure oraingo praktikak ere aztertu genituen, identifikatuz funtzionatzen duena eta ez duena, eta ikasitako guztia beste pertsona batzuekin praktikan jartzeko aukera izan genuen.

GetxoMEETINGak ahalbidetu zuen gure kontaktu-sarea sendotzea, benetako esperientzietatik ikastea eta urtea ixtea gure estrategia komertzialetarako ideia berriak eta asmo argiak hartuta.

Eta lelo honekin geratu ginen:

Egiten ez denak ez du funtzionatzen; horrek ez du funtzionatzen, seguru.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

